



JARRAIBIDEA, OTSAILAREN 2KO 1/2017 ZENBAKIKOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EPOE-KO 49. B) 6. ARTIKULUKO AMATASUN-BAIMENAK ETA NAZIOARTEKO JOAN-ETORRIETARAKO BAIMENA BAITA BULARRA EMATEKO EDO ZAINTEKO BAIMENA ERE HARTZEARI DAGOKIONEZ, AMATASUN SUBROGATUTAEN KASUETAN.

I.- ATARIKOA

Adingabeak babestea helburu duten baimenen aintzatespena erregulatzen duen araudiak -lan-baldintzen eta hitzarmen kolektiboen akordioak- zein prestazioen onarpena lortzea helburu duen araudiak, adopzioaren edo adingabearen harreraren babesa arautu dute amatasun biologikoa ez dagoen kasuetan, eta beraz, azken helburua emakumea bere onera etortzeko laguntza ematea ez ezik adingabeen babesa ziurtatzea ere bada, hau da, adingabearen babeste-moduak arautzea, berak behar dituen arreta bermatuko dituzten eredu bitartez.

Horrela, amatasun subrogatuaren kasuan ere, bere zaintzarako behar duen babesa bermatzeko beharrean dagoen adingabe baten egoera dugu, eta bere gurasoek, zaintze hori benetakoa izan dadin, beharrezko baimenak eduki behar dituzte.

Adopzioaren eta adingabearen harreraren egoerak babestua bezala aitortzeak, zenbait erabaki judizialek egoera horietan dagoen adingabearen zaintza bermatzeko beharra, ordezkapen bidezko haurduntzaren kontratu baten ondorioz jaiotako adingabeen kasuekin parekatu izana ekarri du, eta hori zaintza behar duten adingabeen gurasoen sexua zein den kontuan hartu gabe.

Azkenik, amatasun subrogatuan edo ordezkapen bidezko haurduntzaren kontratu baten ondoriozkoan, adingabearen seme-alabatasuna jaioterriko ebazpen judizial baten bidez aitortuta egon behar da, eta, hortaz, adingabea herrialde horretako Erregistro Zibilaren bulego kontsularrean inskribatuta egon behar da, eta, ondorioz, baimenak eskatu dituen langilearen seme-alaba bezala agertu behar da familia-liburuan.

II.- HELBURUA

Jarraibide honen helburua da, amatasun subrogatuaren kasuetan, nazioarteko joan-etorriagatiko, erditzeagatiko eta edoskitzeagatiko edo 12 hilabete baino gutxiagoko adingabea zaintzeko baimenak hartzeko eskubidea, baimen horiek hartzetik eratorritako prestazio-ekonomikoen aitortpena ezartzen duen araudiari uko egin gabe.

III.- APLIKAZIO-EREMUA

Jarraibide hau, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 7. artikuluan definitutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileei aplikatuko zaie.

IV.- BAIMENAK

1.- Amatasun subrogatuaren kasuetan, erditzeagatiko, edoskitzeagatiko edo 12 hilabete baino gutxiagoko adingabea zaintzeko eta nazioarteko joan-etorriagatiko baimenak hartzeko eskubidea aitortzen da, eskatzaileari aplikatu behar zaion araudian ezartzen diren baldintzetan zein iraupenarekin eta eraginekin, beti ere atal honetan ezartzen diren baldintzak betetzen baditu.

2.- Erditzeagatiko baimena hartzeko eskaerarekin batera, familia-liburuaren kopia edo inskripzioaren ziurtagiri kontsularra aurkeztuko da. Bertan, jaioberriak baimena eskatzen duen pertsonarekiko duen seme-alabatasuna inskribatuta dagoela jasota egongo da.

Erditzeagatiko baimenerako eskubidea guraso bakar bati dagokio, dagokienez aukeran, baldin eta biek lan egiten duten, eta araudiak ezartzen duen partekatuta hartzeko aukerari uko egin gabe.

Erditzeagatiko baimena guraso bakar batek hartzen badu, aitatasunagatiko baimena hartzeko eskubidea, hala dagokionean, beste gurasoari dagokio.

3.- Edoskitzeagatiko edo 12 hilabete baino gutxiagoko adingabea zaintzeko baimena gurasoetako edozeinek har dezake, sexua kontuan hartu gabe. Eskaerarekin batera familia-liburuaren kopia aurkeztuko da baita beste gurasoak baimen hori hartu ez duenaren adierazpena.



4.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.b) artikuluko seigarren paragrafoan aurreikusitako nazioarteko joan-etorriagatiko baimena eskatzeko, baimena eskatzen duen pertsonaren seme-alabaren jaiotzagatik nazioarteko joan-etorriaren beharra egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.

VI.- ERAGIN-EGUNA.

Jarraibide hau indarrean sartuko da sinatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 2.

Izpta.: ANDRES ZEARRETA OTAZUA
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
DPTO. DE GOBERNANTZA
Y AUTOGOBERNO

Donostia-San Sebastian, 1, - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 85 76 - Fax 945 01 86 48